

ASMATZEKORIK EZ

Paraje gertu bat nora begira
non imajinik ikusi ahal
zinta bat aidean besterik ez
abadeak paseatuz- ez al haiz enteratu
bart morro hura ohetik jausi duk-
deskantso ederrean bazter argiak
nondik burua pausatu arratsaldez.

Ezer egin
Ezer esan
Ezer asmatzekorik ez.

Bitartean gauza bakarra
gerta daiteke zure baitan
islada berde bat, irudi bat trabes
egoneza egiaztatuz-neguaeren erdian
han non egunak umildu egin diren-
kaleak zilarreztatatu zubiak erre
kamareroa azken mahaia biltzen.

Hitzak eta doinua: R. Ordorika

NIRE FURGOI BELTZA

Lurrinak ez du oraindik
kristalik estali
eta gogaitua nago honez gero
autobusarekin
eguraldiaren berri irratian
eta zer dio alu horrek

galdu zindudanetik

Nondik nora datorkidan
orain zure oroimena
arraia laranja kolore beltza
faltan ditut
estazioetan ematen geroztik orduak

galdu zindudanetik
hutsean ari
alperrik nabil
galdu zindudanetik.

Teloia jausita mikroak bildu
gauetz etxaldera bakarrik zurekin
herdoila seinaletan lo
hau bakarrik ibiltzearen ordaina


galdu zindudanetik

Behar bezala ez nabil ez
aparta ginduztenetik
non lo egin dezaket, esan
zure altoan izan ezik
non gitarra gorde, erretzekoa
hau mixeria latza

galdu zindudanetik
neure furgoi beltza
arraia laranja
saldu zindudanetik.

Hitzak eta doinua: R. Ordorika





«BART SOBERA ARDO EDAN NUEN...»

Azula azula
jendeaz harutzago arratsaldean
behebarrua erdi zabalduetik
ardurak
ezin zapuzturiko
azula.

Jende hori lehen planoan
umeak barraketan lez.
Denbora adixkidea iragana da
dekoratuaren atzekaldea aldatu ezinik.
Eta hor duzu jende hori
eskinetan
itxoiten dirauena
erosketan
nondik nora ez dakizula
zurekin
topo egiten duena
enkontrutan bultza eginez
nekatzen zaitu
eta-guardasola non daukat
aski da
hiri honetatik banoa.

Hitzak eta doinua: R. Ordorika

BYE BYE GIZONTXO

Oso gustokoa dut zure koloredun kamisa
igande gaueko azken autobusean zoazela
etxeak hospelak dira eta kalea goibela
telediarizoko gizonak ez du jakin nahi
gaur arratsean izandako abenturaz.

Ez tristetu gehio gizontxo
Rosa itzuliko da berriro
datorren hilabeteko egunen batetan.

Gazteak ginen kasik orain dela gutti
hamar urte demagun gure amak ez baleki
bataren atzetik bestea, egun multzoa
eta horri jendeak deritzo bizitzea
zergatik deritzo bizitzea?

Baina benetan ez sumindu gizontxo
oso polita dakarzun koadrozko jaka
zine sarrerak, erretratua, arrazia.

Lo egizu, dagoeneko prest daukazu
mesanotxean kiniela, ohe bikoitza berotu behar
bai, bataila bortitzenak urrun xamar beti
beste nonbait gaurean ixilpean aurreratzen
irabazleen biba astunak.

Lo egizu gizontxo, abaildurik zoaz
ixil ixilik eta oso arin
gaueko azken autobusean.

*Hitzak: J.M. Iturralde
Doinua: R. Ordorika*





GALTZETAN GORDEZKEO KOBLAK

Artizarra ortzantzean lehena da argitzen
saguzahar zaharrena oraintxe da esnatzen
teila gorri orma grisa ixilean laztantzen
zoko beltzen hegaztiak gau berria ehuntzen

Hemen gautza ezin irten errausen gaztelutik
gaua sare erraldoia gugana abaildurik
azpian nau gatibatzen tristorari loturik
hemen natza hau zer denentz adierazi ezinik

Hau izuen gordeleku eta belar hitsena
hau malkoen katedrala gizaseme hutsena
hau eremu bezperage biharamun motzena
hemen datza gorpu bizi herri bat izan zena

Hanitz lore sortzen omen hurruneko bizira
gartzelara sartu oro heldua da hobira
saguzahar ehunleen urkabeen hegira
zelan kulun-katzen garen bi begiez begira

Argi gabe ari nauzu giltzapean koblatan
oinazea bisitari gogoaren zainetan
zaindaria paper bila ari dira zeldetan
erdu eta to zureztat gorde itzazu galtzetan.

*Hitzak: J. Sarrionaindia
Doinua: R. Ordorika*

37 GALDERA MUGAZ BESTALDE DUDAN KONTAKTO BAKARRARI

esaidan, zorionsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak?
kausitzen al duzue maitasunik sikiera zuek maitatuen arteko
ehundiko hogeitabost edo hogeiairen baitan, ala hemen bezala
mutu al diraute telefonoak, bihotz mortuak bailiren gauzez gau
bihotz mortuak bailiren etxeko laberintoaren azkeneko salan?

Zuen erresumako lurraldeen artean ba al dago Greenland edota
Groenlandia deitutako parajerik? Ospelak al dira hango haranak?
Ba al daude Shell konpainiako gasolinategiak, eta ez al dira
biltzen tximeletak kolore horiko karrankaletan? Neguan ere ez?
Ez al du esistitu han *Cenizas* bezala firmatzen zuen espia batek?

esaidan, zorionsuak al zarete mugaz bestaldeko biztanleak?
ez al duzue karramarroekin ametsik egiten? eta ume itzuekin?
Tom Simpson ziklistarekin akordatzen al zarete inoiz?-nola
asfisiatu zen Aubisque mendian gora, nola bere elastikoak
axedrez taulan apurtu bat zirudien karreteraren harri txintzarretan?

Mugaz bestaldean, hostoek ematen al diete babesa fruituei?
Ba al dago marrubirik? Arrain abisalek ba al dute aurresempenik
eguzkiaz, ba al dakite argia eta iluna hitzak bereizten?
Trena hartu eta egunaren trasparentzian izkutatu zen jendeak
azken unerarte gorde al zuen geldi zitekeeneko ilusio?

Hala esan zaidan, haize boladetan datzala txorien halabeharra
ba direla portua sekulako arkitzen ez duten untziak itxasoan;
Zuek patua aipatzen duzueanean zertaz ari zarete, zehazki?
lan seguru baten abantailaz? edo lanjararekin jaten denaz, sinpleki?
Otoi egiterakoan, gogoan izaten al dituzue desertuko karabanak?

Asko al dira, asko al zarete mugaz bestaldeko erresuma hartan?
Egunero kaletik ikusten dudan jende hau, han bizi al da?

*Hitzak. B. Atxaga
Doinua: R. Ordorika*



«BESTE EDOZEIN...»

Beste edozein
hiritako kaletan
flamenkorenak lirirateke
entzundako azken akordeak.
Hemen, berriz, bandoneona nagusitzen da
trikitrixia erdi mutu baten antzean
itsuaren esku artean xamur ari dena.

Asmo ederrak aire zabalean desegin dira
Asmo ederrak maldan beheara amildu dira

Bazter izkutuena ere libratu da
motoristen erronkatik
eta Ducatiak urruntzean
ixiltzen diren legez
honela
pasatuko hintzateke hi
haren ondotik
apenas itzal errainu bat utziaz.

Hitzak eta doinua: R. Ordorika

«BESTE EDOZEIN...»

En cualquier calle/de alguna otra ciudad/serían de flamenco/los últimos acordes a escuchar./Aquí en cambio se impone el bandoneón/que como una trikitrixia medio muda/suena fácil en manos del ciego.

Los hermosos proyectos se han deshecho en el aire.
Los hermosos proyectos se precipitan cuesta abajo.
Hasta el más escondido rincón/se ve libre de la bronca de los motoristas/y del modo en que las Ducatis/se van silenciando al alejarse/así/pasarías tu/a su lado/no dejando más que una sombra.

Letra y música: R. Ordorika

«BESTE EDOZEIN...»

Dans n'importe quelle rue/d'une autre ville/les dernières notes entendues/seraient celles du flamenco./Ici au contraire le bandonéon s'impose/à l'image d'un trikitixia à moitié muette/il résonne facilement dans les mains de l'aveugle./

Les beaux projets se sont envolés au gré du vent/
Les beaux projets ont disparu dans l'abîme./
Le coin les plus reculé s'est libéré/du bruit des motoristes/et de la façon dont les Ducatis se taisent en s'éloignant/ainsi/tu passerai/à côté de lui/en laissant à peine une ombre.

Paroles et musique: R. Ordorika

Eguneroko bizitza ikatza bezelako labexomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe Otis Reding badiako kaion eseri zen aldeplano erorisi kantatzeko blues band Sagarraren loreek su hartu zuten eta niri odola hasi zitzaidan sudurretatik baldosa zuriko komuna publikotan pornografia irakurtzen ari nintzenean love

Eta alkimistek txosten bat eman zuten argitora plusvaliaren alde azalduz eraba Errestaurantetik bi homosexual bota zituzten arrazoi komertzialak zirela merio

Bakardadearen milaka kopia inprimatu ziren neguaren ateetan geundelako

Ene osaba batek postale bat idkribatu zidan Stpp ene urtebetetzea zelako Stppba eta bide batez bere seguruetxea kontseilatu nahi zidalako inoiz ez da jakitg Noiz ene maitaleak telefonoa jo zidan kobre zaporeko maitasunez gauaren erdian

Eguneroko bizitza ikatza bezelako labexomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe

Gero ernari gelditu zen hibain zerutik atergabe jausitako espermoz

alkandota arrosañ loreanuk xuriak gorri beltzak multikoloreak herrestan eramanez eta aste berean bi puta bat naiz oihuztatu zuen ezkontza despedidan chanpagne

Olivetti batetan bere lehen gutun erromantikoa osatu zuen sekretaria latsatiak Eskaleek helere trapuzko etxenk jaso zituzten zubiepan mitxeletak babesteko kattagorriek supermerkatuari eraso zioten altxa besoak non da intxaur kaxafurtea

Negua heldu zen azkenez eta antzerrek V bat egin zuten zeruan

Dispensariotan antitristezi pildorak banatu zituzten ugari

Ejiptoko zozpa izurpiteren edizio ugaldu eta korrejitua usmatuz

Zoriona gramoka saltzeuri ekin zioten trono aingeru eta kerubinek

Birtute kardinek igotze desnaturala eman zuten Erromako baltsan

mila liburu erregalatu zituzten bankuek oro eta bereziki labara lemapean

baina ulferrik zen berandu dabilntza ez dute ezerlortuko honez gero

galaxioak lurrera doaz gortzeletako ormak pitzatu ean dira, eta gu libro gabilntza koleetan tirantezko goltza laranjaz jantzirik. libro libro.

ALBERTO CAEIROREN BISITA

«I Know not what
tomorrow will bring»
erran zuen Fernando Pessoa hil baino
egun bat lehenago.

«—Egun enauzu neu etorri
Alberto Caeiro baino» erraiten zautan
Fernando Pessoa, eta mintzaira nahasiz
eta lokarrigabez irauten zuen solasa.
Eguzkiloreek bezala behatzen zituen
hormetan zelai urregorritzatuak
edota muino izarez estaliak
ene begi lausotuek pinturaren bat,
izpilia edo horma soila ikusten zuten lekuetan.
Natura ederra eta zaharra dela erraiten zuen,
artzainak ardiei begira bezala.
Eta gaua abaildu orduko
curia, eguzkia, ilargia eta etxe atarian aulkia
desiratu eta aldegiten zuen lasai
sonbreiruaren hegala altzatuz.

*Hitzak: J. Sarrionaindia
Doinua: R. Ordorika*

